

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ANDOAINGO UDALA

36. Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren deialdia eta arautzen duten oinarriak.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 22an egindako batzarraldian erabaki zuen 36. Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren deialdia egitea eta deialdi hori arautzen duten oinarriak onartu eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematea. Aipatutako oinarriak dira ondoren argitaratzen direnak:

Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrezanetara egokitua. Helburu horren alde, Andoaingo Udalak 36. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariarako deialdia egiten du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

1. Sariaren xedea.

Euskarazko kazetaritzaren eta komunikazioaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburua. Horrela, bada, 2023ko irailaren 16tik 2024ko irailaren 15era bitartean kazetaritzan eta komunikazioan euskaraz egin diren lanen kalitatea eta bikaintasuna jendarean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, aurrerago aipatzen diren ezaugarrien arabera epaimahaiak eredugarrien irizten dituen lanak sarituz.

2. Sari-atalak.

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

- Kazetaritza saria.
- Komunikazio saria.

Epaimahaiak bere esku izango du euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen Ohorezko mugarrira emateko aukera. Ohorezko aipamena, beraz, bete-betean lotzen zaie euskarazko kazetaritzaren joan-etorrian eragin erabakigarria izan duten gertakariei zein ibilbide pertsonalei.

3. Sari-atalen ezaugarriak.

Honakoak dira Kazetaritza Saria eta Komunikazio Saria deiturikoen ezaugarri nagusiak:

- Kazetaritza saria.

2023ko irailaren 16tik 2024ko irailaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek daukate saria eskuratzeko aukera.

Berriemaitlezarekin zuzen-zuzenean lotutako saria da Kazetaritza Saria. Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako genero-mugarik gabe erabakiko du saria. Izan ere, sari honek bultzatu nahi du informazio edo iritzi-emate edo interpretazio generoetako edukien kalitatea, edozein delarik erabilitako sormen-modua, narrazio-mota, zein igorpen-eredua.

AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

Convocatoria 36 Premio de Periodismo Rikardo Arregi y las bases que regirán la misma.

La Junta de Gobierno Local Municipal en sesión celebrada el día 22 de marzo de 2024 acordó convocar el 36 Premio de Periodismo Rikardo Arregi, así como aprobar y publicar en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las bases que regirán la convocatoria, bases que se publican a continuación:

La normalización del euskera requiere, necesariamente, de un periodismo y una comunicación en euskera eficaces y modernos, de calidad y adaptados a las necesidades de los tiempos actuales. En pos de dicho objetivo, el Ayuntamiento de Andoain convoca la 36 edición del premio de Periodismo Rikardo Arregi, con la colaboración del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, rigiéndose la presente convocatoria por las siguientes bases:

1. Objeto del premio.

El objetivo del Premio de Periodismo Rikardo Arregi es impulsar la calidad, la excelencia y la renovación del periodismo y la comunicación en euskera. Así pues, el fin que persigue la presente edición es reconocer y premiar la calidad y excelencia de los trabajos periodísticos y de comunicación realizados entre el 16 de septiembre de 2023 y el 15 de septiembre de 2024, galardonando los trabajos que el tribunal juzgue de mayor excelencia en función de las características que se mencionan a continuación.

2. Apartados del premio.

El Premio está integrado por los siguientes apartados:

- Premio de periodismo.
- Premio de comunicación.

El tribunal tendrá la potestad de otorgar una Mención honorífica para aquellas instituciones, iniciativas y personas que hayan sido referencia imprescindible en la historia del periodismo en euskera. Por lo tanto, dicha mención se halla plenamente vinculada a los acontecimientos y trayectorias personales que hayan tenido un impacto decisivo en el devenir del periodismo en euskera.

3. Características de los apartados del premio.

Las características generales de los llamados Premio de periodismo y Premio de comunicación son las siguientes:

- Premio de periodismo.

Podrán optar al mismo los trabajos publicados en euskera entre el 16 de septiembre 2023 y el 15 de septiembre de 2024 en diarios y revistas, publicaciones digitales o en radio y televisión.

El Premio de periodismo es un galardón directamente vinculado a la elaboración de noticias. Podrán optar al mismo los trabajos periodísticos de cualquier tipo y género y, por lo tanto, el tribunal resolverá el mismo sin limitación alguna en cuanto al género periodístico. Precisamente, este premio desea incentivar la calidad de los contenidos en los géneros de difusión de información y opinión o interpretación, cualquiera que fuere su forma creativa, el tipo de narración o el modelo de difusión utilizados.

Saria erabakitzeke irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako. Irizpide horiek aplikatzerakoan kontuan hartuko dira, besteak beste, kontakizun informatiboaren gaineko datu-bilketa eta lan-keta, informazio iturrien maila, zehaztasuna, ikuspegi aniztasuna, hizkera, edukiaren balio periodistikoa, sakontasuna edo iritzi/balorazioaz osatutako pieza periodistikoa. Kontuan hartuko da, halaber, jorratutako kontakizunaren interes publikoa, zeinak gizarite eta herritarren interesekoa izan behar baitu.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera ezein euskarritan nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat zein kazetari talde bat izan lan sarituen egileak, edo ezein euskarritako zuta-beak: horietatik guztietatik edozer saritu ahal izango du epaimahaiak.

– Komunikazio Saria.

Saria eskuratzeko aukera dute, euskarazko komunikazioaren mesedetan urrats berritzaile direnek edo izan litezkeenek. Betera, 2023ko irailaren 16tik 2024ko irailaren 15era bitartean euskaraz sortu, ekoitzi eta, kasua bada, zabalduko komunikazio ekintza bat, komunikazio proiektu bat edo komunikazio proposamen bat izan beharko du nahitaez. Era guztietako narratibek zein komunikazioaren esparru zabaleko egitasmo pertsonal, kolektibo eta enpresarial guztiek dute tokia sari honetan, baita unibertsitateetako komunikazio ikasketetako gradu amaierako proiektuek ere.

Saria erabakitzeke irizpideen artean kontuan hartuko da, sarituko dena berritzaile, bide urratzaile edota teknologia aurreratua baliatzen duena izatea. Nolanahi ere, bereziki baloratu da ekintza edo proiektu komunikatiboak euskal komunitatea elikatzeke erakusten duen edo izan dezakeen eragina, berrikuntza teknologikoa kontuan hartuz eta bazterrean utzi gabe, baina modu baztertzalean hartu gabe. Testuinguru horretan garrantzitsua litzateke berritzaile izatea –edozeran berritzaile–, kalitatezkoa izatea, bide-urratzaile izatea, teknologia aurreratuz baliatzea, etabar.

4. Lanak aurkezteaz.

Parte hartze zabala sustatzeko helburuarekin, proposamenak aurkezteko aukera irekita dago. Horrela, bada, edonork aurkez ditzake Kazetaritza Sariaren edota Komunikazio Sariaren jabe izatearen aldeko proposamenak, norbere lanen gainekoak edo besterenak, eta proposamenak aurkezteko deia egiten zaie bereziki autoreei, komunikabideei oro har eta euskarazko kazetaritza eta komunikazioarekiko interesa duten guztiei.

Hala eta guztiz ere, saria –Kazetaritza Saria zein Komunikazio Saria– eskuratzeko ez da beharrezkoa izango inork aldeaz aurretik lanak eta/edo proposamenak aurkeztea. Izan ere, epaimahaiak egokien irizten duen moduan egingo ditu sari horiek erabakitzeke egin beharreko jarraipen eta hautaketa lanak, ahalmena baitu sariaren gaineko erabakiak hartzeko, hautagaitza aurkeztua izan edo ez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituko da 2024ko irailaren 20an, eta honako ezaugarriak adierazi beharko dira:

- Proposatutako lanaren edo/eta autorearen identifikazioa (lanaren izenburua, autorearen izen-deiturak).
- Argitaratutakoa denean, argitalpenaren kopia, erreferentzia zehatza edo, Interneten eskuragarri baldin badago, horren lotura.
- Argitaratu gabeko proiektua baldin bada, proiektua bera bidaliko da dagozkion euskarrietan. Halaber, proposamenaren

Los criterios principales para la resolución del premio serán los siguientes: la calidad, la renovación y la ejemplaridad; ejemplaridad tanto en lo que se refiere al propio periodismo en euskera como en lo referente al periodismo elaborado en el entorno. A la hora de aplicar dichos criterios se tomarán en consideración, entre otros, la recopilación de datos y su elaboración, el nivel de las fuentes de información, la exactitud, la diversidad de perspectivas, el lenguaje, el valor periodístico de los contenidos, la profundidad o la pieza periodística de opinión/valoración. Asimismo, se tendrán en cuenta el interés público del relato elaborado, que habrá de ser, en todo caso, de interés social y de interés de la ciudadanía.

Por todo ello, con arreglo a dichos criterios podrán ser premiados artículos y reportajes singulares o en repertorio que hayan destacado en cualquier soporte: una sección, un reportaje de radio o televisión o una serie de reportajes o un programa concreto, sea una la periodista autora del trabajo premiado o un grupo de periodistas, o, también, columnas en cualquier tipo de soporte: cualquiera de estas opciones podrá ser premiada por el tribunal.

– Premio de comunicación.

Podrán optar al premio aquellos trabajos que reflejen, o pudieran activar, un avance innovador en favor de la comunicación en euskera. En todo caso, deberá ser, necesariamente, una acción comunicativa, proyecto o propuesta de comunicación creado, producido o, en su caso, difundido entre el 16 de septiembre 2023 y el 15 de septiembre de 2024. En el presente premio tienen cabida todas las narrativas así como todos los proyectos personales, colectivos y empresariales del amplio espectro comunicativo, incluso los proyectos de fin de grado de los estudios de comunicación universitarios.

Entre los criterios a tener en cuenta para la resolución del premio, se tomará en consideración su carácter innovador, transgresor y/o la utilización de las más avanzadas tecnologías. En todo caso, se valorará especialmente el impacto que la acción o proyecto comunicativo tenga o pueda tener en la comunidad vasco-parlante, sin olvidar su carácter de innovación tecnológica pero sin que este sea excluyente. En dicho contexto, será considerado el carácter innovador –innovador en cualquier sentido–, transgresor, su excelencia, la utilización de tecnología avanzada, etc.

4. Presentación de los trabajos.

Con objeto de facilitar la más amplia participación, queda abierta la opción de presentar propuestas. Por lo tanto, cualquier persona o entidad puede presentar propuesta a favor de la concesión del Premio de periodismo o del Premio de comunicación a un determinado trabajo, sea de autoría propia o ajena y se hace un llamamiento muy especial a los autores, medios de comunicación en general y a todos los que alberguen algún interés relacionado con el periodismo y la comunicación en euskera.

No obstante, para ser premiado –bien sea con el Premio de periodismo bien con el Premio de comunicación– no será necesaria la presentación previa de trabajos o de propuestas. El tribunal actuará de la forma que estime más conveniente para realizar el seguimiento y selección necesarios para la resolución de dichos premios, dado que será potestad suya adoptar la resolución sobre candidaturas que hayan sido presentadas o no.

El plazo para la presentación de propuestas finaliza el 20 de septiembre de 2024 y deberán presentarse incluyendo los siguientes contenidos:

- Identificación del trabajo propuesto y/o de su autor (título del trabajo, nombre y apellidos del autor).
- En caso de que haya sido publicado, referencia concreta a la publicación o, si es accesible vía Internet, enlace.
- Si se trata de un proyecto sin publicar, se presentará el proyecto en sí en los soportes correspondientes. Asimismo, se

merezimenduei buruzko azalpen laburra ere bidaliko da. Haue-
tako modu baten bidez bidaliko dira proposamenak:

– Posta arruntaz: Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua, La
Salle etorbidea, 6, Urigain etxea, 20140 Andoain.

– Posta elektronikoz: raks@andoain.eus.

Aurkeztutako lanak, edozein euskarritan aurkeztuta ere, ezin-
dira berreskuratu.

5. Sariak.

Sari atal bakoitzean lau finalista aukeratuko ditu epaima-
haiak, gehienez. 2024ko azaroaren hasierako egunetan emango
da ezagutzera finalistak zer lan edota zein kazetari edo komuni-
kaziogile diren. Bi saridunak, berriz, sari banaketa eguneko eki-
taldian emango dira ezagutzera, ez lehenago. Sari banaketa eki-
taldian, bertan izango dira zortzi finalistak.

Hona 36. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria osatzen duten bi
sariak:

– Kazetaritza Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak
berriaz egindako oroitikurra.

– Komunikazio Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak
berriaz egindako oroitikurra.

Gainera, 36. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko finalistei, sa-
ridunei izan ezik, Xabier Lakak sarirako egindako serigrafia ba-
na emango zaie.

Sariak norbanaka nahiz taldeka egindako lanei emandakoak
izan daitezke, baina zatietan dira.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du epaimahaiak.

6. Epaimahaia.

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

Mahaiburua:

– Marta Lasa Goñi, Andoaingo Udaleko Euskararen Norma-
lizaziorako zinegotzi arduraduna, edo horrek bere ordezkoi gisa
izendatutako udalkidea.

Mahaikideak:

– Miren Berasategi Zeberio.

– Eneko Bidegain Aire.

– Itxaro Borda.

– Angel Erro Jimenez.

– Libe Mimenza Castillo eta

– Pantxika Maitia.

Idazkaria:

– Arantza Aguado Perugorria, Andoaingo Udaleko euskara
teknikaria.

Epaimahaiak aukera izango du bere erabakiak hartzeko pro-
zesuan kanpoko kolaboratzaileen laguntza eskuratzeko, halako
beharrak ikusiko balu.

7. Sarietako buruzko azken erabakia.

Sari banaketa 2024ko azaroan ospatuko da, Andoaingo Bas-
tero Kulturgunean, beste zenbaiten artean zortzi finalistak ber-
tan direla, eta han emango da ezagutzera epaimahaiak bi sari-
en gainean hartutako azken erabakia. Epaimahaiak hartutako Azken
Erabakia apelaezina izango da.

remitirá también una exposición breve sobre los méritos de la
propuesta. He aquí las direcciones a las que se han de dirigir las
propuestas:

– Por correo ordinario: Ayuntamiento de Andoain-Servicio de
Euskera, La Salle etorbidea, 6, Urigain kulturetxea, 20140 Ando-
ain.

– Por correo electrónico: raks@andoain.eus.

Los trabajos presentados al premio, cualquiera que sea su
formato, no podrán ser recuperados.

5. Premios.

El tribunal seleccionará en cada apartado cuatro finalistas
como máximo. La relación de finalistas con su detalle (periodis-
ta o comunicador, trabajo que se examina...) se dará a conocer
a principios de noviembre de 2024. La identidad de los dos tra-
bajos premiados se hará pública, finalmente, el mismo día de la
entrega de premios, no antes. En el acto de entrega de premios
estarán presentes, por lo tanto, los ocho proyectos finalistas.

El detalle de los galardones de la 36 edición del Premio Ri-
kardo Arregi de Periodismo es el siguiente:

– Premio de periodismo: dotado con 9.000 euros y una es-
cultura expresamente realizada para el premio por el escultor
Xabier Laka.

– Premio de comunicación, dotado con 9.000 euros y una
escultura expresamente realizada para el premio por el escultor
Xabier Laka.

Además, los finalistas del 36 Premio Rikardo Arregi de Perio-
dismo, excepto los premiados, recibirán una serigrafía realizada
para el premio por el escultor Xabier Laka.

Los premios podrán concederse tanto a título individual
como colectivo, pero serán indivisibles.

El tribunal podrá declarar desierto cualquiera de los aparta-
dos del premio.

6. El jurado.

El tribunal estará compuesto:

Presidente:

– Marta Lasa Goñi, concejala para la Normalización del Uso
del Euskera del Ayuntamiento de Andoain o corporativa o corpo-
rativo en quien delegue.

Vocales:

– Miren Berasategi Zeberio.

– Eneko Bidegain Aire.

– Itxaro Borda.

– Angel Erro Jimenez.

– Libe Mimenza Castillo y

– Pantxika Maitia.

Secretaria:

– Arantza Aguado Perugorria, técnica de euskera del Ayunta-
miento de Andoain.

El tribunal podrá recabar, durante el proceso de adopción de
su resolución y si lo considerara necesario, el asesoramiento de
colaboradores externos.

7. El fallo final de los premios.

El acto de entrega de premios se celebrará en noviembre de
2024 en Andoain, con la presencia, entre otras personas, de las
representantes de los ocho trabajos finalistas, dándose a conocer
en el mismo la Resolución Final del tribunal sobre ambos premios.
La Resolución Final emitida por el tribunal será inapelable.

8. *Baldintzak onartzea.*

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berearekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.

Andoain, 2024ko martxoaren 22a.—Andoni Alvarez Lete, alkatea. (2355)

8. *Aceptación de las Bases.*

La participación en este Premio supone aceptar todas y cada una de las bases de la convocatoria, y, para poder recibir el premio será necesario cumplir todos los requisitos estipulados en estas bases.

Andoain, a 22 de marzo de 2024.—El alcalde, Andoni Alvarez Lete. (2355)